

# Baleike

Zumaiako  
herri  
aldizkaria.  
10. zbkia.  
1995eko  
martxoan.  
100 pztan.



## Monjaxarrak, ora pro nobis

**Emakumea**

Martxoaren 8a  
Emakume  
Langileen Eguna

**Elkarrizketa**


Arritxu Iribar,  
kirol  
kazetaria

**Kirolak**

Herri Krosa  
martxoaren  
12an




(Javier Carballo utzitako argazkia)



*Ezagutu al dezue gure frontoia? Bai, Odieta pelotalekua degu argazkian azaltzen dena. Jakingo dezue 1888an inaguratu zela, baina urte batzuk pasa ondoren estali zuten. Txistulariak hor ageri dira beren doinu alaiak joaz. Euri dextente egin du ordudanik, baina jadanik ez da frontoirik bustitzen.*

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**

**ZUMAIako INSTITUTUA**  
Aita Mari Auzategia, z/g  
20750 - ZUMAI  
86 08-09/86 08 10



Zumaiako Udalak diruz  
lagunduriko aldizkaria





**BALEIKE**

**HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea  
tfnoa: 86 10 56

argitaratzailea  
**ZUMAIAKO  
GAZTE  
BATZORDEA**

Ian taldea

Iratxe Aizpurua  
Esther Martinez  
Itziar Manzisidor  
Xabier Azkue  
Igor Uranga  
Josu Waliño  
Gorka Zabaleta  
Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

G.E.G., Natur taldea,  
Miriam Romatet,  
Aitor Leiza, Izar Martin,  
Imanol Manterola, Ander  
Hormazuri, Jon Manzisidor

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.  
(Zubillaga - Oñati)  
tirada: 600 ale

Lege gordailua: SS-405/94

**BALEIKE** ez du bere gain  
hartzen aldizkarian  
adierazitako  
esanen eta iritzien  
erantzunkizunik.

Argazki Zaharra.....	2
Hitzaurrea.....	3
Iritzia: Minusbaliatuak.....	4
Gai Librean.....	5
Ze Berri?: Ihauteriak.....	6
Elkarrizketa: Arritxu Iribar.....	8
Herriko ilustrak: Baltasar Etxabe.....	11
Erreportaia: Monjaxarrak.....	12
Inkesta: Superstizioso al zera?.....	15
Komikia .....	16
Antimilitarismoa: Juan Luis Blancoren epaiketa .....	18
Olarru zopa.....	19
Izerdi patsetan: Zumaiako krosa .....	20
Emakumea: martxoaren 8a .....	22
Sexualitatea .....	24
Kultur Agenda:.....	25
Musika .....	28
Denborapasak.....	30
Merkatu txikia.....	31
Lehiaketa .....	32

**H**itzaurrea

*Imajinatzen degu dagoeneko ihauterietako festa giroa alde batera utziko zenutela, ezta? Ez dago hala ere errekuuperatzeko denbora gehiegirik, konturatu orduko San Telmoak gainean izango ditugu eta. Bitartean, lasaitasun eta atsedeen osoz irakurtzeko hemen doakizue Baleike aldizkariaren zenbaki berri bat, hamargarrena.*

*Monjaxarrekin solasaldi interesgarri bat izan degu, Arritxu Iribarrekin ere hainbat kontutaz jardun gera. Hilabete honetan ospatzen den emakumeen eguna ez degu ahaztu eta ezta hemendik gutxira korrituko den krosa. Hau gutxi balitz, hor izango dituzue jakina, ohizkoak diren bestelako atalak: sexualitatea, kultur agenda, musika...*

*Goza ezazue!*

**PREMIAZKO TELEFONOAK:**

Kultur Etxea .....	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 2172
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44



# ZUMAIAKO MINUSBALIATUAK ELKARTU EGIN DIRA

Minusbaliatu Fisikoek egunero Zumaian aurkitzen dituzten arazoetaz sentsibilizatuta daudenen artean, talde bat osatzeko beharra somatu zuen Zumaia Minusbaliatu Fisiko baten ekimenez, udal gizarte laguntzailearen herri mailan talde bat sortzeko ahalbidea azaldu zitzaion.

Idea hau, Udaleko Gizarte Ongizate Batzordeko bilera batean azaldu eta batzordeari interesgarria irudituz, Zumaia Minusbaliatu Fisiko, psikiko eta sensorialei bilera orokor baterako deialdia luzatu zen.

Lehenengo bilera honetara minusbaliatuak, udaleko ordezkariak eta boluntarioak etorri ziren. Bertan ahaleginak bateratu eta somatzen ziren beharrezko buruzko proposamenak eta horien jarraipena egiteko taldea osatzeko ahalbidea, agertu zen.

Bileran zeuden gehienak talde bat sortzeko premia ados bazeuden ere, egiaztatu ahal izan zen, minusbaliatu fisiko, psikiko eta sensorialek dituzten arazoak oso diferenteak direla. Hori dela eta, bileran zeuden batzuk beren burua lekuz kanpo ikusi zuten, bileran hirigintza oztopoetaz hitz



egin zelako gehien bat, eta ez minusbaliatuen beste sektore batzuk dituzten arazoetaz.

Lehenengo bilera hartatik, hurrengo astean beste bilera bat egiteko proposamena atera zen. Eta bigarren bilera honen ondorioz, gaur egun, Zumaia Minusbaliatu Fisikoen Taldea dena, osatu zen.

Bestalde, ezin ahaztu Zumaian beste era bateko eskaerak eta beharrak dituzten Minusbaliatu psikiko eta sensorialen pertsonak badaudela eta hauek ere taldea osatzera animatu ditugu.

Minusbaliatu Taldea 1993ko urriaren 26az geroztik biltzen ari da. Hilaren azkenengo asteartean biltzen gara, arratsaldeko zortzietan udaleko Gizarte Zerbitzuen lokaletan.

Talde modura gabiltzanetik, ondorenean aipatzen diren gaiak aurrera ateratzen saiatu gara:

- Hirigintzako oztopoak kentzeko Udalak duen proiektu partzialaren jarraipena.

- Alkatearekin bilera, Minusbaliatu Fisikoentzat arranplak, barandilak eta aparkalekuak eskatzeko.

- Indarrean dagoen Hirigintzako Oztopoen Legea betetzeari dagokionez, Aita Mari Zinea eta Itzurungo hondartzako lanen jarraipena. Aita Mari Zineko lanak bukatu baino lehen, Minusbaliatu Fisikoen ordezkari batzuk, alkatearekin batera, lokal berria ikusi zuten, jakiteko ea zer neurri hartu ziren minusbaliatu fisikoek lokala erabili ahal izateko.

- Ikastetxeetako zuzendariekin bilera bat egin da, ikastetxeak, zailtasun fisikoren bat duten pertsonen beharretara egokitzeko obligazioaz informatu eta sentsibilizatzeko.

Bukatzeko, adierazi, taldea sortu berria bada ere, eta herritar guztien bizitza kalitatea hobetzeko gauza asko egin behar baditugu ere, gai horretaz sentsibilizatutako guztiak animatzen ditugula, gurekin batera lan egin dezaten.

Harremanetarako telefono zenbakia: 862200. ■

**LANDARE  
LOREDENDA**  
Baltasar Etxabe, 5  
Tel. 862472 ZUMAIA

**ZUMAI  
TABERNA**  
Erribera kalea, 2  
Telefona: 861125  
ZUMAIA

**Gastedi  
kirolak**  
Kirol jantziarik egokienak  
preziorik hobereenetan  
Etxebarreta 9 - Zumaia



## IHAUTERIAK

Jada igaro dira hainbeste desiatu-riko Ihauteriak. Egun hauetan zein ondo igaro eta nola mozorrotuko garen erabakitzen jardun ondoren, azkenik, konturatzeke joan zaizkigu ditzosozko ihauteriak.

Oraindik ere tabernetako musika hotsa dantzut, baita horditurik dagoen jende gehiengoaren ixilezinezko berriketaldia ere. Musikaren erritmo leunaz dantzan jardun genuen eta baita musika burrundatsuaz lerdoarena egiten jarduteagatik lurrera erori ere.

Esan daiteke denbora noiz igaroko itxaroten ari garen denboraren esklabuak edo menpekoak garela. Bizitza osoan egun seinalatu batzuren zain egoten gara eta egun hauetako bat igarotzean laister asko hasten gara beste egun seinalaturen bat bilatzen.

Ihauteri hauek ere, festa gehientsuenak bezala azkar igaro dira, hau oso seinale ona da, ederrak izan direla esan nahi baitu. Ontsa, dakit, askori ihauteriak ez zaizkiela atsegin, nolabaiteko tristezia edo gorrotoa sorrarazten dietelako. Baina eguneroko monotonia hautsi eta azkenaldiko urduritasunak aldegitako, festa batzuetan ondo igarotzea baino hobeagorik zer dago?

Aintzinako ohitura hau mantendu beharra dago eta mozorrotzeari bere alderdi ona begiratu behar zaio, ez ezagutzeko moduan mozorrotu ezkeru adar jotze ederrak sar daitezkeela.

Parrandaxoa bota ondoren etxeruntz nentorrela, laguna eta bion hanka hotsa bakarrik entzuten zenean ordea, izugarriko tristezia sartu zitzaidan. Logurea eta nekea bakarrik ziren gure lagun. Kale ertzak txixez eta gonbitoz beteak zeuden. Belarretan bikote bat elkar muxukatzen ari zen, ez zuten euririk somatzen eta are gutxiago gu, elkarrentzat soilik zeuzkaten begiak. Gure atzekaldean, urrun xamar, kalegarbitzailea zegoen baso hautsiak eta lurrean zeuden hamaika paper garbitzen.

## IHINTZ LINAZISORO

## TXOTX!



XABIER AZKUE

Garai honetan izan ohi degu sagardotegian zita txuleta eta bakailuakin bapo asetzen da tripa bapatean TXOTX! entzundakoan kupeletara bixita denok kantuan hasi ohi gera salto, brinko ta jauzika lagun arteko giro eder hau ez al da gauza polita.

Bueltan ordea bide ertzean alkoholemia kontrola eskerrak behintzat autobuseko txoferra ondo dagola etxera ere iritsi gera baina ez dakigu nola iruditzen zait jo ditugula bi edo hiru farola halare ondo ibili gera besteak ez du axola.




JON BRAUN.

**Foto Gar**  
Aldizkari,  
egunkari  
eta opariak  
  
Erribera kalea 21

**Huntza, o.k.**  
  
DISEINUA  
MANTENUA  
ERABERRITZEA  
ZUHAITZ, ZUHAIXKA  
ETA FRUITONDOEN  
KIMAKETA  
lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

**Itzurun**  
ATEAK-PUERTAS  
Era guztietako  
egurlanak  
Itzurun zuhaitzbidea  
Tlf: 861565 - 143446





## Ihauteriak argazkitan

Gotzaiak kalizatik zurrutean,  
piratak Odietan ron bila,  
beltzeko hirukotea mareatu  
aurpegiarekin eta pinotxo  
kuadrila musuak gorri-gorri  
eginda. Eskerrak Joxe Marik  
alkoholemia kontrola jarri zuen  
(positibo denak ere).

Auto - Konponketak

# ELKAR



PEUGEOT

Estazioko kalea  
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201

JOSEBA OSA

**- ITZULPENAK -**

EUSKARA-GAZTELERA-  
KATALANA-INGLESA-  
FRANTSESA

tel / fax: 148065



# Kirol portuaren aurka 175 alegaziotik gora

Proiektua erakusgai egon den bitartean 175 alegaziotik gora aurkeztu dituzte herriko eta kanpoko hainbat talde eta pertsonak. Lehenbizi erakusketa publikoaren prozedura salatu da, Ingurugiro Saila izan ordez Garraiokoa izan baita 6 tomatoko proiektua aurkeztu duena, 20 eguneko epe motzean. Gainera V Eranskina "galduta" egon omen da eta hau ere salatu da.

Zumaia Bizirik taldekoek adierazi digutenez, proiektu honekin oso loturik dagoen Zumaia herri turistiko eta 2.etxebizitzakoa izatearen aurka jarri dira alegazio gehienak eta datu sozio-ekonomikoen manipulazioa ere salatu dute 135 pertsona baino gehiagok.

Obrek ekosistema urri eta ahul batean eragiten dutenez, Ingurugiroaren Gaineko Ereaginaren Ebaluaketa (IGEE) izan da gehien

aztertu den proiektuko alderdia. Donostiako AZTI-k egin du ebaluaketa hau eta alegazio askok salatu dituzte datuen partzialitatea, zehaztasun falta eta ezkutetzea. Honela egin dute Eguzki, Greenpeace, Itsas Enara, Zumaia Natur Taldeak eta beste hainbat taldek.

Zenbaitek gainera zalantzan jarri dute enpresa honetako teknikariek hegaztiak, landaretza aberastasuna eta paisaia baloratzeko duten gaitasuna. Ingurugiro teknikari talde batek IGEEa zehatz-mehatz aztertu ondoren irregularitate ugari topatu ditu, eta hauek hasierako planteamenduak eta azken kontsiderazioak aldatzen dituztenez, IGEE hau baliorik gabe uztea eskatu du.

Zumaia Bizirik taldeak jendeak agertu duen interesa eskertu nahi du, eta alegazio hauek zerbaitetarako balio izango duten esperantza mantentzen du oraindik ere. ■



Paolaldeko obrak geldituta daude oraingoz.

**Ur-gintza SL**

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK  
 GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK  
 ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK  
 SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa, z/g Tel: 148082  
 78 Posta kutxa Fax: 148081  
 20740 IRAETA - ZESTOA

**NIKOL-ENE**  
 taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440

## LABURRAK

### AEK EGUNA ZUMAIAN

Euskaltegi berrian martxa hartzen ari direnean, KORRIKA ere ganean degun momentu honetan aurten AEK EGUNA gure herrian izango dela jakin degu, **urriaren 22an** hain zuzen ere. Honelako egun haundi bat antolatzeak ematen dituen lanak kontuan hartuta batzorde bat osatu da lanak pixka bat aurreratzeko. Honi buruz gehiago jakin nahi duenak Euskaltegian eska dezake informazioa.

### HERRI ESKOLAREN AURKEZPENA

Lehengo martxoak 2an izan zen Aita Mari zineman Zumaia Herri Eskolaren aurkezpena, eta han izan ziren, besteak beste, Rikardo Peña alkatea eta baita Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburua eta hiru ikastetxeetako zuzendariak. Bilera honetan Herri eskolaren nondik-norakoak azaldu zituzten: adinen arabera nola banatuko diren, nolako ereduak izango diren, irakaskuntzaren bestelako ezaugarriak eta abar. Zumea ikastolak, Julene Azpeitia ikastetxeak eta Zumaia Institutuak bat egiten dute gure haur eta gazteen heziketarako hain garrantzitsua den proiektu honetan eta jarraitu beharreko kontua izango da.



**ARRITXU IRIBAR:****"Kirol kazetaritzan, emakume izateagaitik demostratu egin behar dezu badakizula horretaz"**

**Kirol munduari oso loturik egon da beti emakume hau, eta bateko eta besteko kontuak eskatu dizkiogu. Euskadi Irratian entzun dezakegun ahotsa, paperera pasatzeko ordua bazela iruditu zaigu.**



*Tourra Donostiatik atera zenean han izan genuen Arritxu jo ta ke lanean.*

**Noiz eta nola sartu zinen irrati munduan?**

Hau 8. urtea da eta kasualidadez sartu nintzen. Euskal Filologia amaitu nuen eta klase batzuk ematen ere ari nintzen eta orduan filologiako kurtso horretako jendea eskatu zuten irratiatik. Bi aukeratu gintuzten eta hasiera goizeko programa batean izan zen, Joxerra Gartziaeren ardurapean zegoen programa batean.

**Ze programa mota egiten zenuen hasiera hartan?**

Ba goizetako programa tipiko horietako bat: goiz kronika, eguraldia, errepideak, prentsa irakurri, goizeko lehenengo albisteak. Ordu t'erdiko programa bat zen eta baserritar eta arrantzaleentzako ere txoko bat izaten zen; kirolak ere tartetxo bat izaten zuen. Denetik egoten zen.

Hasieratik norbaitek jakin zuen txirrindularitza asko gustatzen zitzaidala eta garai hartan txirrindularitzaz bakarrik irratian lan egiten zuen inor ez zegoenez, lan hori betetzea eskeini zidaten.

**Gustora hartu al zenuen lan berria?**

Bai, hori nahi nuen, nahiz eta bere alde txarrak ere badituen. Guk ez degu asteburuetan jai egiteko aukerarik; larunbata-igande guztiak okupatuta ditugu eta hor pixka bat gizartearekin olatuaren kontra zabilta: jendeak jai duenean zuk lana dezu, zuk jai dezunean denak lanean daude. Baina esaerak dion bezela, gustoko tokian aldaparik ez.

**Nondik datorkizu kirolerako afizio hori?**

Etxetik datorkit. Etxean beti izan da kirol giroa. Osaba eta aitona pilotan jokatuak dira, pilota zen gehien bizi genuena. Zumaiarra izanik arrauna ere bai, noski; kuadrilan beti arrauna, ia mutil gehienak arraunlariak zirenta. Baina gero anaiari asko gustatzen zitzaion bizikleta eta hamar urte zituela

hasi zen karreretan parte hartzen, eta berekin joaten hasi nintzen ni ere. Larunbat-igandero juntatzen ginen talde bat eta jai giroa zen guretzako; lagunak ginen eta gure afaritxoak egiten genituen, gure juergak. Giro horretan buru- belarri sartu nintzen.

**Herri txikietan zailagoa da kirolari onak ateratzea**

**Orduan zure kirolik gustokoena txirrindularitza dela esan dezakegu.**

Bai, bai. Duda izpirik gabe. Oso kirol berezia dela iruditzen zait: naturarekin harreman zuzena du, lehia du kirol guztiak bezela, kirol oso oso gogorra da eta gero beraien artean ere oso giro berezia dago. Oso

**EGOKI  
ERLOJU DENDA**

E: Gurrutxaga plaza, 6  
**ZUMAIA**

**JZETA**  
orrastegia

Urumea 6  
Tlf: 862083





kirol gutxitan ikusten da batek bakarrik lortu duen sari bat guztien artean banatzea, edo hark irabazteko nik lan egin beharra eta pozik gainera. Txirrindulariek bestalde sufritzeko gaitasun ikaragarria dute.

## Tourra ere jarraitu zenuen duela gutxi, ezta?

Bai, orain dela bi urte. Txirrindulariek bezela nik ere uste det Tourra dela lasterketarik onena eta nere helburua inoiz Tourra jarraitzea zen, barrutik ezagutzea. Eta amets hori egia bihurtu zen. Liluratu egin ninduen; liluratu eta ikaratu, ze momentu honetan publizitatea dela eta antolatzaileei eskuetatik ihes egiten ari zaie. Irteera edo helmuga bat antolatzean, ikaragarria da zenbat mila lagun mugitzen den eta zenbat interes publizitario dagoen.

## Indurainek irabaziko al du 5. Tourra?

Nik uste baietz, eta agian asko esatea da, baina seigarren bat ere posible du irabaztea. Hori baino gehiago... ez dakit. Aurten gainera oso garbi du Migelek, Tourra bakarrik prestatuko du.

## Marinori buruzko liburu bat ere idatzi zenuen...

Bai, Ramon Etchezarretarekin batera idatzi nuen. Arlo literarioaz Ramon arduratu zen eta nik pixka bat Marinoren historiala jaso, egunkari zahar pila bat begiratu, Marinori buruz ateratzen ziren gauza guztiak bildu,... Gero bion artean ez dakit zenbat ordutako elkarrizketak izan genituen Marinorekin. Oso esperientzi polita izan zen. Betidanik "marinista" izan

naiz; laguna nuen gainera, eta lagun hori gehiago ezagutzeko aukera eman zidan liburu honek.

## Hasieran "bitxo raro" bat bezela begiratzen ninduten

## Zergaitik da hain berezia Marino?

Ba apala delako, batez ere. Oso saiaturia delako ere bai; ez ditu garaipen haundiak lortu, baina aurpegia ematen zuen, erasoak jo, eta gauza horiek asko gustatzen zaizkio jendeari. Gainera Marinori edonork zerbait eskatuta ere Marino beti

laguntzeko prest zegoen. Jendea arrazoi ximpleenetan oinarritzen da eta hori da balio duena.

Baina injustizia asko ere egiten da. Adibidez Julian Gorospe munduan dagoen tiporik jatorrenetako bat da; batzuk oso aldekoak izan ditu eta beste batzuk oso kontrakoak. Julianek lan haundia egin du eta ez du merezi izan holakorik.

## Zer du Euskal Herriko afizioak besteek ez dutena?

Txirrindularitza hain gogorra izanik, jendeak txirrindulariak beste era batera tratatzen ditu. Jendeak jarraitu egiten ditu, badaki baloratzen eta ententitzen ditu txirrindulariek egindakoak.



Betidanik Marinozale sutsua izan dela aitortu digu.

**Surf**

Torre Luzea, 2  
Tel. 83 50 24  
20800 ZARAUTZ

Erribera, 2/g  
Tel. 86 23 69  
20750 ZUMAIA

**Enduñola Zumaia**

- \* SUKALDERAKO ALTZARIAK
- \* ELEKTROGAILUAK
- \* BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Erribera, 8  
Telefonoa: 861694

ARRAIN ETA MARISKOAK

**7 MARES**

BARAZKIAK  
ETA  
AURREZ  
PRESTATUTAKO  
JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK



**Gaia aldatuz, kirol kazetaritzan ez da emakume asko egongo. Hasiera gogorra izan al zen?**

Txirrindularitzan ez, ze txirrindulari gehienak lagunak nituen eta beraiek ikaragarri lagundu ninduten. Etapen amaieretan ere, lehen elkarriketak nik egin ahal izaten nituen, lagunak nituelako. Gainera jendeak bazekien nik mundu hori ezagutzen nuela eta sinesgarritasun pixka bat banuen.

Beste kirolean emakume izateagatik demostratu egin behar dezu badakizula horretaz. Elkarriketa bat egitera joan eta amaieran esaten zizuten: "jolin, zuk entenditu eta guzti egiten dezu-eta!" Gero Euskal Herria, zoritxarrez, oso matxista izan da, eta herri kirolean askoz gehiago nabaritzen zen oraindik. Gutxiena hala ere kirolarien aldetik izaten zen; inguruko giroan eta zaletuek beraiek "bitxo raro" bat bezela begiratzen ninduten.

**Txirrindulariek  
sufritzeko  
gaitasun  
ikaragarria dute**

**Nola tratatzen da emakumezkoen kirola komunikabideetan?**

Oso gaizki. Añorgak lehengoan futboleko liga irabazi zuen eta jendea juxtu-juxtu enteratu da, azken egunekoa bakarrik azaldu delako.

Hau kirol guztietan gertatzen da. Eta antolatzaileen aldetik ere bai; datorren igandean adibidez maratonia da Sevillan eta emakumezkoek distantzia bera egin arren gizonezkoen erdia jasoko dute. Atletismoan hori nabarmen-nabarmena da.

Hala ere ez da erraza izaten Euskal Herri osorako den irratia batean kirola bere osotasunean tratatzea; futbolak eta batez ere 1. mailakoak tarte handia hartzen du eta askotan arazoak izaten ditugu bestelako kirolak ere behar bezela aztertzeke.

## Herriko kontuak

**Zumaiako kirolarien martxa jarraitzen al dezu?**

Bai, dexente. Orain badakit nahiko makal dabiltzala, helduen



Emakume gutxi omen daude kirol kazetaritzan.

taldeak behintzat. Hala ere poza ematen dit hainbeste gazte hain kirol ezberdinetan nola dabilzan ikusteak. Gero eliteko kirolariak ateratzea falta da; horretarako egia esan sakrifizio handia behar da. Dena den, herri txikietan zailagoa da kirolari onak ateratzea; normalean gazteak kanpora joaten dira ikastera eta ez dute entrenamendu egokirik egiteko modurik.

**Arrauneko garai onenak ere joan ziren...**

Ea berriz ere etortzen diren ordea. Oso garai polita izan zen eta oso hurbiletik jarraitu nuen. Estropadetara autobusak antolatzen ziren, jubilatuen eskurtsioak tartean; katxaperoak, rezibimienduak, txarangak,... Zoragarria izan zen, ia igandero izaten zen festa giroa.

**Jendea gogor dabil kroserako prestatzen...**

Bai, eta pozten naiz. Zorionez Herri Krosaren izaera mantendu du eta garai honetan behintzat jendeak kirol pixka bat egiten du. Urte batzutan megafoniatik hitz egiten ere aritu nintzen; hasieran lotsa pixka bat ematen dizu herrian bertan hari zeralako, baina gero jendea ezagutzen dezunez animatzen saiatzen zera eta giro berezia sortzen da egun horretan.

**Zeuk ere kirolen bat egiten al dezu?**

Ez, ez, keba!. Batzuei ikusten eta gozatzen egotea tokatzen zaie, eta horien artean nago ni. Bueno, tarkeka gustatzen zait pasiatu eta mendira joatea. Lehen finagoa nintzen kontu horietan. ■

**leize**  
**TABERNA**

Juan Belmonte, 6  
Tel. 860415 ZUMAIA

  
Erribera Kalea, 6  
Telefona: 86 17 07  
Fax: 86 17 07  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

  
Amaiako plaza, 7  
Tel.- Fax: 862385  
20750 ZUMAIA



# BALTASAR ETXABE

Duela 450 urteko kontuekin gatozkizu oraingoan, irakurle. Euri asko egin du geroztik beraz; pentsa. Baina on da gure aurrekoen berriak ez baztertzea eta gogoratzea. Oikiako gizon ospetsu hau dakargu gaurkoan errebista kuttun honetara. Zumaian badugu kaletxo bat haren oroigarri, besterik ezean. Nor genuen eta zer egin zuen aipatuko dugu lerro gutxi hauetan.

J.Dorrnsoro

Baltasar Etxabe Orio, *Etxabe zaharra* deitua, 1548 urtean jaio zen Oikian, 25 urte zituela Mexikora joan zen bizitzera eta han hil zen 1620an, 72 urterekin. Alderdi askotatik nabarmendu zitzaigun gizon argi hau. Bizibidez abokatua zelarik, goimailako karguetara heldu zen, Mexikon hain preziatua zen erret entzutegiko epaile izateraino alegia. Lege gizon izateaz gain, artelanetak jakitunek diotenez, Mexikok bere historian zehar izan duen margolaririk interesgarrienetakoa izan da zumaiarra eta hango Pintura Akademian ongi gorderik dauzkate haren margo-obrarik onenak: *Xochimilco*-ko erretaula, *Adoración de los reyes*, *Oración del Huerto*, *Visitación*, eta *La porciúncula* izeneko marrazkiak.

## Idazle eta euskaltzalea

Baina guzti horietaz gain, liburu berezi eta famatuaren egile dugu Etxabe zaharra. Mexikon bizi zela erderaz idazten baldin badu ere, euskeraren egoera eskaxaz kezkaturik agertzen zaigu (pentsa noiztik gabiltzan gaizki) eta gure

hizkuntza maitearen goraiipamena eta garrantzia aieratzen ditu lau haizetara mundu osoaren aurrean. Izenburu luzea dakar liburuak: *Discursos de la Antigüedad de la Lengua Cántabra Vascongada*. 1607. urtean argitaratu zuen han Ameriketara eta eragin handia izan du geroztik hizkuntzalarien artean. Berak uste zuen euskera izan zela Espainia osoko lehen mintzaira eta hori adierazten saiatzen da liburuan zehar, ondorioz mundu guztiari eskatuaz estima dezala behar duen neurrian hain bitxi ederra den euskera.



Harro gaude beraz zumaiarrok gure Baltasar Etxabe jakintsu eta



Baltasar Etxabe berak bere buruari egindako irudia.

euskaltzaleaz. Ez da gutxiagorako. Guk gaur badakigu urruti xamar joan zela agian euskera goraiatzeko bere asmo sutsuan. Garaian garaiko gauzak, ez da besterik. Baina gaur oraindik balio digu haren erakutsiak; gure sustrai zaharretara jo nahi baldin badugu, euskera estimatu eta landu behar dugula alegia.

Handik eta hemendik jasotako berri nagusiak eman ditugu gaurkoan. Nik entzuna dut gure pertsonaia gaur Aizarnazabal delako partean sortua dela eta garai hartan Zumaia herriarena zela Aizarnazabal. Artikulu honen irakurleen artean norbait balego, jaiotagiria dela edo beste horrelako zehaztasun historiko interesgarririk eman dezakeenik, ez legoke gaizki herritar guztioi aldizkari popular honen bidez agertuko baligu. ■

## ZUMAI A

**AUTO -ESKOLA**

- \* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- \* Praktika eta azterketak Azpeitian
- \* GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea  
☎ 861018

20750 ZUMAIA

# Arkupe

Okindegia  
eta gosariak

**Kale nagusia, 2**



# Zumaiako monjaxarrak ez daude hain xahar

Ordubeteko elkarrizketa egiteko asmoz geratu ginen igande arratsalde bateko zortzirak eta laurdenetan, baina gaueko hamarrak jo zizkiguten komentuan (bertako arauak hautsiz), ardo goxoa eta pastak ahoan, kontu-kontari, elkarrizketa amaitu ezinik.

Joseba Osa / Ismael Manterola



Horma hauen atzean dauden arren, herriko berri ederki omen dute.

Komentu hau 1614ean sortu zen. Labaien familiaren jauregia zen, eta etxeke alabak 13 urte zituela bere bizitza Jainkoari entregatu nahi izan zion, nahiz eta aitak ezkontzea nahi zuen. Eta horrela, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko karmeliten lehen konbentua izan zen, eta bertatik sortu ziren beste hiru komentu: Donostia, Zaldibar eta Orduñakoak.

Gaur egun, 12 monja daude Zumaiako komentuan, eta beraiek dioten bezala, "badirudi berririk ez datorrela. Gu laster hilko gera, eta ez da ordezkorik ikusten". Harrituta uzten gaitu zein naturalki hitz egiten duten heriotzari buruz, munduko

gauzik normalena izango balitz bezala. Bokazioa kontua European nahiko gaizki omen dago, gainontzekoan etxe berriak sortzen ari badira ere, guztira munduan 865 monastegi dituztelarik. Errusian eta Bielorrusian ere bokazioek gora egin dute. Hemengoan artean, berriz, elkarteak sortu dira hain isolaturik ez egoteko.

## Eguneroko bizitza

6,30etan jaikitzen dira, 7-8,30 otoitza, 8,30etan meza, berriro otoitza eta gero gosaria. Ondoren lanak hasten dira: sukaldea, porteria,

Debako fabrika baten-tzako plastikozko piezak landu, baratza zaitu... 12,25ean otoitza, eta gero isiltasunean bazkaria, monja batek irakurtzen duen bitartean, eta jaietan musika entzuten. Gero rekreoa, hau lanean eta hitz egiten, eta ondoren otoitza. 15.00-16.00 bitartean irakurketa espirituala, lauretan kantoa edo lana, 6retan bezperak, 18,30-19,30 otoitza pertsonala. 19,45etan afaria, eta gero, ordu beteko rekreoa. Azkenik otoitzak eta 10,45etan erretiratzeko dira. Beraiek esaten diguten bezala "denbora asko pasatzen degu isiltasunean. Ez al



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19      Telefonoa: 861433  
20750 ZUMAIA      Fax: 861067

MATE  
ILEAPAINDEGIA

Berezitasuna ileen  
sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278



Erribera kalea      Telefonoa: 861523  
ZUMAIA



da polita?". Garbiketak eta etxeko lanak ere (hormak konpondu, etab) beraiek egiten dituzte nahiz eta ez diren hain gazteak. "Nik -dio Karmengoa baserrikoak- 60 urte egin ditut bertatik irten gabe". Duela 31 urte sartu zen azkena, eta beste guztiak tartean dabilta.

Komentua autosufizientea dela esan daiteke. Baratzatik urte gutzirako janariak ateratzen dituzte, berdurak, fruta (kiwiak, naranjak, limoiak, madariak, sagarrak...). Gazta ere egiten dute, eta ia gauza guztietan metodo naturalak erabiltzen dituzte, "animaliarik izan gabe zimaurrea lortzen degu, ez al da milagroa?" eta parre egiten dute hori esanda. Zimaurrea egiteko, sukaldeko eta baratzeko hondakinak erabiltzen dituzte.

Lanak hala ere madre superiorak banatzen ditu. Postu hori hiru urtetik behin aukeratzen dute demokratikoki.

## Etorkizunari begira

Etorkizuna nola ikusten duten galdetutakoan, Jainkoarengan konfiantza dutela adierazi digute. Beharbada konbentuak elkartu egingo omen dira, baina gazteekiko ez dute esperantzarik galtzen "orain gazteei ez zaie interes handirik ikusten gure bizimoduarekiko, baina ez da inoiz jakiten. Gazteek bihotz ona dute eta pentsatzen dutena esaten dute, baina perseberantzia falta zaie. Gogorra egiten zaie betirako erabaki bat hartzea eta hori beharrezkoa da

gure bizimodu honetan. Baina parejan ere gauza bera gertatzen da. Segituan separatzen dira. Lehen beste giro bat zegoen".

## Baserrietako ekologisten oso antzera bizi omen dira.

Beraiek beren aldetik Zumaiako gazteak oso hurbil sentitzen dituzte. Beraien alde otoitz egiten dutela esan ziguten. Herriko gazteentzat mezu bat eskatu eta monja guztiak hasi ziren beren erantzunak ematen, nahasian hitz egiten: "beren arazoak ulertzen ditugula; asko maite ditugula; ez beldurrik izateko Jaungoikoaren deiaren aurrean; Jesusi bihotza

zabaltzen badiote gauzak oso ondo joango zaizkiela bizitzan; baina baita ere dibertitzeko, eta gorputza zaintzeko, zeren dibertitzea ondo dago, baina parranda gehiegi egiten bada gorputzak ere sufritu egiten du".

Elkarrizketa amaitu arren hitz egiten segi genuen, esateko gauza asko zeuzkatelako oraindik. Bai, hormen atzean bizi arren, oso bizimodu interesgarria dute. Monjaxarrak isolatuta bizi direla uste duena oso oker dabil. Guri, behintzat, errepaso ederra eman ziguten, herriko jendearen berri guk baino hobeto zekitelako.

Ia-ia esan leike denak jubilatuta daudela, baina izugarriko alaitasuna eta interesa ikusi genuen beraiengan, oraindik neska gazteak balira bezala.



Baratzetik urte gutzirako janaria lortzen omen dute.



**MENDI - ONDO**  
ELEKTRIZITATEA

Axular 14  
20750 ZUMAILA

Telefonoak:  
860074 - 861569

- ALARMAK
- ANTENAK
  - \* Banakoak
  - \* Kolektiboak
  - \* Satelite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.



SUKALDEKO  
ALTZARIAK

DORNUTEGI  
ARMAIRU ENPOTRATUAK

Hasadi Auzotegia 10 Sela  
Telefonoa: 862051

20750 ZUMAILA  
(Gipuzkoa)



# "Jendeak beldurra dio isiltasunari, bakarrik egoteari"

**ZER ZENTZU DAUKA ISILTASUNAK GAUR EGUNGO MUNDUAN?**

Jendeak beldurra dio isiltasunari, hau da, norberari, bakarrik egoteari. Etxean telebista eta irratia beti daude martxan, eta kalean ere gazte asko hor ibiltzen dira, beren aparatu handiak belarrian ipinita... Umeek telebista gehiegi ikusten dute, eta horrela galtzen dute kreatibitatea eta baita lasaitasuna ere.

**KANTU GREGORIANOAK IZUGARRIZKO ARRAKASTA DU GAUR EGUN...**

Oso musika ederra da, barruan sartzen dena, oso sakona. Baina Silosen nekatzen ari dira jende gehiegi joaten zaielako. Agian moda bat besterik ez da, pasajeroa. Kontua aldatzea da.

**ZER IRUDITZEN ZAIZUE EMAKUMEAK ELIZA KATOLIKOAN DUEN LEKUA?**

Hori da Santa Teresak lortu zuen gauzetako bat, emakumeen lekua hobetzea, zeren garai hartan ez zuten onartzen emakumeek inolako protagonismoa izatea Elizan. Gizonek "orgullo" handia izaten dute.

**EMAKUMEAK INOIZ APAIZ IZANGO AL DIRA?**

Beno, Ama Birjina ez zen apaiz izan, baina espiritu santua jaso zuen lehena bera izan zen, apostoluak baino lehen.

**AITA SANTU HONEKIN ETA OPUS DEIK**

**DUEN ERAGINAREKIN ELIZAK ESKUINERA JO DU, ETA EZ DU ONARTZEN DISIDENTZIARIK, FRANTZIAKO OBISPOAREKIN GERTATU DEN BEZALA.**

Beharbada. Bueno, garai batean ingles bat eskomulgatu zuten, aurreratuegia zela pentsatzen zutelako, eta gero kardenal egin zuten. Aita Santu honek zerbait itxi egin du, bai, baina ulertu behar da Poloniatik datorrela, eta Polonia oso itxita bizi izan dela. Gai sozialetan, berriz, oso irekia da, eta gazte asko mugitzen ditu.

**BAINA ELIZAK ESATEN DU POBREEN ETA MARJINATUEN ALDE EGIN BEHAR DELA LAN, EZTA? FRANTZIAKO OBISPO HORREK HORIXE EGITEN ZUEN.**

Bai, baina bera urrutiegi joaten ari zen, jerarkiaren kontra jo zuen, ezta? Zer gertatu da ba, berarekin? Ez al zituen antikonzeptiboak eta homosexualak defenditzen? Hori ezin leike.

**BAINA ELIZA KATOLIKOA IRITSIKO DA HORI ONARTZERA, BAI HORIXE.**

Ez hori ez, txarra dena ez du inoiz onartuko.

**DUELA BI MENDE GAUZA ASKO TXARRAK ZIREN, ETA ORAIN EZ, ORAIN ONARTZEN DIRA. ELIZAK ERE EBOLUZIONATU EGITEN DU.**

Bai, hori egia da, baina oso zaila izango da gauza horiek onartzea. Jainkoak gizon eta emakume sortu zituen... ez dakit, elizak eboluzionatu egiten du, baina ez dut uste hori aldatuko denik. ■



*Futbol ekipo bat izango balitz bezela jarri zitzaizkigun argazkia ateratzerakoan.*



**Taosa** SURF DENDA

- \* Bainujantziak
- \* Surfeko tablak
- \* Poliesterrezko plastifikatzeak
- \* Erropetako serigrafia
- \* Toallak
- \* Erropak

Erribera Kalea, 17 - 20750 ZUMAIA

**BELARDENDA SIWA**



Esther Blanco  
OSTEOPATA-MASAJISTA  
Basadi 5-C behea  
Tlf: 143404 - 860012



**Superstiziosoa al zera? Horrelakoetan sinisten al dezu?**



**Ana Arano:**

Asko ez, baina horoskopoa irakurtzea gustatzen zait. Holako egun batean ere zorte txarra izan det.



**Felix Aizpurua:**

Ez. Nik errespetatzen ditut gauza horiengan fedea duten pertsonak, baina ez diot inoiz inportantziarik eman.



**Henar Garcia:**

Noizean behin, badaezpada ere, ez naiz beti hortaz pentsatzen egoten den horietakoa, eskailera azprietatik pasatzen naiz. Behin ia katu bat zapaldu nuen eta larritu egin nintzen.



**Joxe Mari Albizu:**

Ez. Segun ze kasutan gehiago arduratzen naiz baina normalian ez, gainera zerbait txarra gertatu behar badu, gertatuko da.



**Aitor Leiza:**

Ez. Neretzako hoiek norberak buruan dauzkan gauzak dira. Gauza asko norberak nahi baditu gertatzen dira. Beste batzutan destinoak agintzen du, nere ustez behintzat.



**Iñaki Agirrezabalaga:**

Egia esan ez. Gauza batzuk beharbada bai baina gehienetan ez. Ilargiarekin erlazioa duten gauzekin sinisten det. Adibidez, ilargi betiarekin ilea moztuz gero errezago hasten dela diote batzuk.




**Gonzalo Torre:**

Ez det sinisten. Ez det uste guzti horrek oinarri bat duenik. Ez dit inoiz horrek kezkatu eta gainera ez zait inoiz ezer gertatu alde horretatik.



**Amaia Berastegi:**

Ez det sinisten. Igual katu beltz bat pasatzen da eta egurra ikutzen det. Nere ustez ohitura bat da.



**Ile - kosmetikan diplomatua**

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160  
ZUMAIA


*Belardenda*  
**Paki**  
OSASUN NATURALA  
erribera 2  
Tlf: 143156

**ONCE**  
**JOXE MANUEL**  
Kupoi batzuk erosi eta ...  
**ZORTE ON !!**











Otsailaren 14ean epaitu zuten Donostian Juan Luis Blanco intsumiso zumaiarra. Zumaiar bati egin zitzaion bigarren epaiketan garbi azaldu zen mugimendu honek gizartean duen babesa.

Zumaitik hainbat gazte mugitu ginen, Juan Luisi gure elkartasuna adierazi asmoz. Orain sententzia kaleratzea besterik ez da falta.



# Juan Luis ere ez doa

Goizeko hamarretan autobus bat abiatu zen Donostiarantz herriko jendez beteta, institutuko gazteak gehienbat. Donostiara iritsi ondoren epaitegi aurrean elkartu genien "Gu Ez Goaz" hitzak azaltzen zituen pankarta atzean. Barruan Juan Luis abokatuarekin zegoen epaiketaren azken xehetasunak prestatzen. Hamaiketan puntu-puntuan deitu zioten lehendabiziko zenbakiko epaigelatik, barruan Epaile andrea eta fiskal jauna prest zeuden dena hasteko zai.

Epaiaketa ez zen luzea izan, 10 edo 12 minutu igaro ondoren Justizia Jauregi aurreko atea zeharkatzen ari baitzen Juan Luis. Txalo zaparrada jaso zuen momentu honetan eguneko gure protagonistak eta intsu-

misioaren aldeko oihuak entzun ziren, gazte horren jarrerak guztion onarpena jasoz.

Barruan Juan Luis trago txarra pasatzen ari zen bitartean, kanpoan bildutakoak alai eta jai giroan adierazi genion gure elkartasuna, soinua eta panderoa astindu genituen entzungor diren epaile eta beste kontura zitezen epaitzen ari zirena ez zegoela bakarrik eta bere herriaren babesa zuela.

Kontutan eduki behar dugu, epaiketa asko egon arren eta ekintza hoiek eragin gehiegirik ez eduki arren, garrantzizkoa dela epaitzen ari denarentzat jendearen elkartasuna ikustea, bakarrik ez zaudela sentitzea, gizartea hobetzeko borroka aurrera eramaten

ari bazara batez ere.

Juan Luis irten ondoren Jauregira buelta pare bat eman genituen pankarta aurrean jarrita, txaloak eta intsumisioaren aldeko oihuak errepikatuz. Gero alde zaharrerako bidea hartu eta Gobernu militarren aurrean beste konzentrazio txikia egin genuen, hauen erantzunkizuna aurpegi-ratzeko asmoarekin.

Hemen bukatu genuen protesta eta alde zaharrean zerbait hartu ondoren Zumaiara bueltatu ginen ordubatean (batzuek festa jarraitu zuten hala ere...).

Orain sententziaren zai egon beharko dugu 10 edo 15 egun pasatu arte. Honen berri emangu dizuegu hurrengo Baleiken. ■

**ERROTA**  
**ERROTA**  
OPIL - OKINDEGIA



Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68  
Erribera 2 - Tfno. 14 30 01  
ZUMAIA

**BASUSTA**  
**ERRETEGIA**



M<sup>a</sup> Dolores Aizpurua  
Pantxita Etxezarreta, 25  
Telefona: 862073  
20750 ZUMAIA

**AXIER KIROLAK**



Ortega y Gasset, 2  
ZUMAIA  
Telefona: 862206



## Kerejetaren asmakizunak

Kerejeta anaiek untzigintza-tailer bat zeukaten Zumaian. Segundo Kerejeta batez ere beti ari zen zerbait asmatzen. Abioiak hasi zirenean, berak ere aireplanoak egitea pentsatu zuen. Zumaiaiko Talaimenditik Debaraino heldu behar zen. Kerejeta bata eta Isidro sartu ziren pilotu. Beste Kerejeta Deban zegoen zain, musika banda eta guzti, katxaperoz ondo hornitua.

-Bultza oraintxe! -hotsegin zuen Kerejeta pilotuak.

Aireplano berria ez zen itxasora ere heldu. Haitz artean erori zen eta pilotuentzat istripu gogorra. Beste Kerejeta Oraindik Deban dago musika jotzen.

Kontu-kontari

Hemeroteka

## IDEOLOGIA ETA POLITIKA

Pertsona ez politikoa bazera eta politika barnean sartu nahi baduzu, goazen hurrengo definizioak ikustera:

**SOZIALISMOA** : Zuk bi behi dauzkazu eta zure aukokideari bat oparitzen diozu.

**KOMUNISMOA** : Gobernuak bi behi kentzen dizkizu eta esnea ematen dizu.

**FASZISMOA** : Gobernua behietaz apropiatzen da eta esnea saltzen dizu. Bi behiak kendu ondoren nagusia akatzen da.

**KAPITALISMOA** : Bi behi eduki ezkerro, bat saldu eta zezen bat erosi. Ugaldtu eta behi asko edukitzen dituzu. Orduan esnea sobran edo alfalfa faltan. Alfalfa falta badu, behiak hiltzen dira eta pikutara doa "bussiness-a" eta esnea soberan bada prezioa jeisten da eta pikutara doa ere.

**PASOTISMOA** : Kanuto bat pasatzen zaio behi bati, bestea toreatzen da eta nagusia eraisten da.

*Kuestioa dek, letxe ona edo mala letxia izatea. LETXE!*

**AIDA!** EHU-ko Euskara Taldearen berripapera. 0. zn.

lau  
hitzetan

Nor: Joseba Franko  
Nola: "Palo"

- Goizean goiz zure etxeko leihotik barrura begiratuko bagenu...
- Ba, tipo bat kriston mala ostian eta begiak ireki ezinikan ikusiko zenuketen.
- Goizero pilak kargatzeko modua?  
Cola Cao basoka eder bat.
- Afaria Argiñanon edo Lizeagan?  
Lizeagan, kriston martxa dagola! Gainera edan dezakezu nahi dezun guztia eta prezio berdinagatikan.
- Zer egingo zenuke ohe borobil batean?  
Puf! Gauza asko!
- Harreman hotz bat berotzeko?  
Hitz egin.
- Lehen muxua non eta noiz?  
Izango zen klinikan eta jaiotzen egunean.
- Hitz egin, edo hitz egiten entzutea, zer nahiago?  
Ez bat eta ez bestea. Segun nola nagoen.
- Zein da sekula jantziko ez zenuken erroa bat?  
Letxuginoena.
- Zer nahiago, egunez lo egitea ala gauzez bizitzea?  
Asteburuan gauzez bizi eta astegunetan gauzez lo egin.
- Zer falta da Zumaian?  
Gauza asko! Gazteentzako libertade pila!
- Eta zer dago soberan?  
Soberan? Ja, ja, ja! Jun goiko plaza!
- Zerk sortzen dizkizu hotzikarak?  
Kriston goxamenak...
- Nori ez zenioke inoiz gezurrik esango?  
Nire buruari.

ALBAITARITZA  
KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
- ALBAITARIAK -

Basadi, 7 behea  
20750 ZUMAIA  
Tel. 143310

LARRIALDIK  
· 24 orduetan  
· Zeure etxean  
· Telef. 900-282828  
Abonatu zbkia: 247790

BIZKOR  
FOTOKOPIAK

- \* Enkuadernaketak
- \* Plastifikatzeak
- \* Fax publikoa
- \* Bulegoko materiala

Basadi, 14 behea Tfnoa: 143120  
ZUMAIA Fax: 143120



Hemen degu berriro ere urtero Zumaian egiten den kros famatua. Aurtengo honetan pare bat nobedade izango dira.

## "Korrika egitea beste edozein droga bezalakoa da"

Alde batetik, azken urteotan krosa martxoko lehen asteburuan burutzea izan bada ohitura, urte honetan bigarren asteburuan korrituko da, martxoaren 12an hain zuzen.


Honen arrazoia da, lehenengo asteburuan Espainiako Kross Txapelketa jokatu behar dela. Ondorioz, proba garrantzitsu horrekin ez koinziditzeko, astebetetz atzeratu da.

Bestalde, Juan Mari Garinek 1990. urtean ezarritako errekorra apurtzea lortzen duenari 100.000 pezetatako saria emango zaio Juanjo Harategiaren izenean.

Lasterketa nagusia goizeko 10,30etan hasiko da aurretik beste maila batzuetako probak jokatuko diren arren.

Herriko korrikalari onena den Marianok ez du oraingoan parte hartzerik izango, beharbada honek emozio apur bat kenduko diolarik lasterketari. Hala ere, osagaiak badaude kirol ikuskizun polita bizitzeko. Espero dezagun parranda ondorengo "ikuskizun" handiegirik ez gotea.

Mariano Sanchez de la Flor, herriko "keniarra":



Marianok ikaragarriko sasoi duela erakusten ari zaigu, urteak aurrera badoaz ere.

**-Noiz hasi zinen seriozki korrika egiten?**

Hogei urte beteko ditut urte bukaeran korrika egiten hasi nintzenetik. Gazte-gaztetatik hasi nintzen, hamalau urte nituenetik gutxi gorabehera.

**-Korrikalari beteranoa zerala esan daiteke. Erretiratzea pentsatu al dezu?**

Beno, 34 urte ditut eta bai esan daiteke beterano xamarra naizela. Hala ere, nik urtero denboraldia

hasterakoan ilusio handia izaten det, nere lehenengo urtea balitz bezala; ez nago batere erreta.

Urte batetik bestera nere errendimendua hobetzen saiatzen naiz, nahiz eta urteak aurrera doazen heinean hau gero eta zailagoa izan. Ahal dudan bitartean korritzen jarraituko det. Erretiratzea oraindik ez zait burutik pasatu ere egin.

**-Nolako entrenamenduak egiten dituzu?**





Hasteko, karreretan hasi baino dexente lehenago, kilometro pila bat egiten ditut, errodaje moduan. Gero, abendutik aurrera lasterketak hasten dira eta orduan entrenamendu espezifikoagoak egiten ditut; korritu behar dudako proben arabera izaten dira.

**-Zumaiako Krosean beti ibili zera muturrean, baina ez dezu oraindik erematzetik izan. Zer falta zaizu horre-tarako?**

Gero eta zailagoa da Zumaiako krosean punta-puntan ibiltzea. Urte batetik bestera korrikalari hobeagoak eta prestatuagoak etortzen dira, maila handiko jendea. Hainbat aldiz bigarren postuan sailkatu naiz, baina beti norbait izan da nere aurretik.

Kross hau korritzen den garaian zerbait gertatzen zait: lesionatuta nagoela, lesio batetik irten berria naizela... Bestalde, ez degu ahaztu behar Zumaiakoa Euskal Herrian antolatzen den lasterketa garrantzitsuenetarikoa dela eta jakina, partaidetza ez da nolanahikoa.

**Zumaiako Krossa Euskal Herrian antolatzen diren hoberenetakoa da, oso maila altua egoten da**

**-Aurtengo ediziorako ze asmo dituzu?**

Zoriturrez oraingoan ez det parte hartu behar. Alpetako mendietara noa eskiatzera eta ezin izango det krosa korritzen den egunerako bueltatu. Pena bat da, nahiko forma onean aurkitzen bainaiz eta ilusio handiak nituen jarrira lasterketa honetan.

**-Edozein modutan, Juan Mari Garinek orain dela bost urte ezarritako marka paregabea hobetzea posible dela uste al dezu?**

Honbre, oso zaila izango da baina ez da ezinezkoa. Errekorra hobetzeagatik eskeintzen diren 100.000 pezeta horiek, benetan tentagarriak dira. Gogor aritu beharko du ordea, sari hau eskuratu nahi duenak, marka ez baita

txantxetakoa. Maila handiko jendea etorriko da eta ikusiko degu zer egiteko gai diren.

**- Gero eta gehiago dira afizio modura korrika egitera animatzen direnak. Ikusi besterik ez dago egunero-egunero gure herriko kaleetan barrena zenbat jende dabilen korrika. Nola ikusten dezu hau?**

Egia da. Jende pila bat ikusten da korrika egiten egunero. Nik uste gehienak herriko krosari begira prestatzen direla eta baita Behobiako lasterketarako ere. Badira baita ere, pixkat serioago hartzen dutenak eta kanpora irteten direnak maratoiak eta antzekoak korritzera. Korrika egitea bizio bat da, beste edozein droga bezalakoa da; desengantzatzea ez da erraza. Neri behintzat zaila egiten zait. ■



*Atletico San Sebastian taldean aritzen da aspaldidanik.*

**KOSTA GAS**

**GAS ETA KALEFAZIO INSTALAZIOAK**

**Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)**

**expert**

**ELEKTROGAILUAK**

Mertxe Aizpurua  
expert eta  
Repsol-Butanoren  
Banatzaile Ofiziala

**GURE TXOKOA**

**TABERNA**

Kaxuelita eta pintxo  
ezberdinak

**San Pedro kalea Zumaia**





# Martxoaren 8ak ez du zentzurik galdu

Aurtengoan ere Zumaiko Emakume Taldea eta Egizanen eskutik Martxoaren 8aren inguruan hainbat ekitaldi izango ditugu herrian.

Guzti honekin nabaria da, Zumaian ere martxoaren 8ak ez duela inondik inora bere esanahia galdu, eta emakumeen arazoak hor dirautela.



**ZERGATIK AUKERATU ZEN EGUN HAU ETA ZER GOGORARAZI NAHI DA ZEHAZKI, ZER ESAN NAHI DU?**

Egun hau aukeratzeko arrazoia gertaera batean datza. Mende honen hasieran, horrelako egun batez, Estatu Batuetan emakume talde batek beren lantegian greba bati ekin zion bere eskubideak erreibindikatuz. Nagusiak zer egingo eta lantegiari su eman zion, eta emakume horiek hil egin ziren. Egun hori gogoan izateko, eta batez ere emakumeoi dagozkigun eta eskuratu ez ditugun eskubideak zeintzuk diren akordarazteko ospatzen da martxoaren 8a. Beraz, emakume guztion eguna da, ez bakarrik

lantegi batean lan egiten duenarena, hori bezain langilea baita etxeko lanak egiten dituen.

**BAINO ORAIN DELA URTE BATZUETATIK ALDAKETA NABARMENAK IZAN DIRA, EZ?**

**Gure ustez instituzioak zuloak estaltzen saiatu dira.**

Orain dela hamar-hamabost urte erakunde feministek zabaltzen zituzten zenbait mezu eta aldarrikapenek gizarte honetan izan dute bere eragina, eta gaur egun

normaltzat ere jotzen ditugu askotan. Adibidez lan munduari dagokionez, emakumeak bertan sartzeko gero eta trebakuntza hobe du, aukera gehiago, etab.

Baina urratsak eman baditugu ere, usten dugu eskubide horiek lortzeko bidean oraindik pauso asko eman beharra daudela. Hor daukagu, adibidez, ia etxe guztietan aldatu ez den egoera: etxeko lan eta ardura gehienak emakumearen gain daude, haurren heziketa, pertsona helduak zaintzea, etab. Lan merkatuan ere azpilan asko egiten da, inongo segururik gabe, orduko oso gutxi kobratuz,



**OPTIKA  
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057  
20750 ZUMAIA

**balezulo**  
inportaturiko erropa  
eta artisautza  
Basadi 3 Zumaia



lanpostuen inongo segurtasunik gabe.

**AZKEN URTE HAUTAN, ORDEA, BADIRUDI INSTITUZIOETATIK SAIATU DIRELA ARAZO HORIEI AURRE EGITEN. HOR DITUGU KANPAINAK, EMAKUNDE BERAREN SORRERA,...**

Gure ustez instituzioak zuloak estaltzen saiatu dira, baina ez diote aurre egin arazoari bere osotasunean; arazo zehatzen aurrean irtenbideak ematen dira, egoera larrian dauden emakumeei batzuetan banakako irtenbideak ematen zaizkie, baina ez zaio arazoari bere osotasunean heltzen.

Emakumearen aldeko politika falta da, prebentzio eta kontzentziazio kanpaina, publizitatearen kontrola etab. Beste adibide bat jartzearen, herri mailan premiazko zenbait zerbitzuren falta nabarmena da: haurtzaindegia, jantoki eskolarrak, gaixo kronikoak zaintzeko medioak eta emakumea etxe-zulotik ateratzeko ezinbestekoak diren beste hainbat zerbitzu.

**ERASO SEXISTAK... EGUNERO IZATEN DA NONBAIT ADIBIDEREN BAT KOMUNIKABIDEETAN.**

**Gizarte patriarkal honetan gure lan eta indarrez etorriko dira aldaketak, badago zereginik!**

Arazo larria izaten jarraitzen du, eta komunikabideetan ezezik oso urrutira joan gabe gure inguruan ere aurki ditzakegu adibide horiek: bortxaketak, jipoiak, mehatxuak, erahilketak, etab. Eguneroko kontuak dira, nahiz eta aparteko gertaera gisa aurkezten zaizkigun. Gaur egun, Euskal Herrian, eraso horien %5-10 bakarrik salatzen dira, eta benetan izugarria eta beldurgarria iruditzen zaigu.

**BUKATZEKO, BESTE ZERBAIT?**

Benoa, gaur egungo egoera aldatzeko lan egitera animatu nahi ditugu emakumeak. Gizarte patriarkal honetan gure lan eta indarrez etorriko dira aldaketak, eta benetan, badago zer eginga! ■

## EGITARAUA

**Asteazkena 8**

9etan Kafe Terulia Oxforden

**Osteguna 9**

Zine Forum: "La maté porque era mia"

**Ostirala 10**

Afaria Juaristi jatetxean.  
2.000 pta. Izenak:  
Inpernupe eta Juaristin.

**Larunbata eta igandea**

Oxforden liburu azoka eta argazki erakusketak.

**Osteguna 16**

10etan "Geu errudun" Ttanttaka antzerki taldea.

**Antolatzaileak:**

EGIZAN


Emakume Taldea

**Laguntzaile:**

Udaleko gizarte ongizate batzordea.



## JUARISTI JATETXEA



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 Tlf: 861853

## ZALLA TABERNA ERRETEGIA

Plater konbinatuak · Otartekoak  
OILASKO ERREAK

San Pedro, 4 Tel: 862387  
ZUMAIA



"Lotsa ematen dit esatea... ez dakit... ez dakit nondik hasi... zera... zakila txikiegia daukat... eta etorri naiz ia hormona batzuekin edo pastilekin edo... zakila hazten lagunduko duen zerbaitekin... edozertarako prest nago... egia esan, etsita nago. Nire arazoak kontutatu nintzenean, lagunekin batera dutxatzeari utzi nion, parre egingo zidatenaren beldur... emakumeak? burutik pasa ere ez... edozein aitzaki jarri eta kitto... nola joango naiz neska batekin hemen daukadan honekin? parrez lehertuko zen. Emakume batek behar du... eta nik...



## ZAKILA TXIKIEGIA DAUKAT ETA...

Emakumeak bere sexuaz gozatzeko eskubidea berreskuratu duen garai hauetan, gizona zeharo galduta dabil. Emakumea pixkanaka bere independentzia ekonomikoa lortzen ari den bitartean, gizonak garai onenak joan zirela gogoratzen du aurrera begiratu gabe. Azken finean, emakumea emakume bihurtzen den bitartean, gizonak zakilaren tamainari begiratzen dio bere gizentasuna neurtzeko.

Sarreran azaldutako arrazoiak hori eguneroko gauza da tamalez. Gizon askok uste du zakila txikiegia duela, eta edozertarako prest daude "arazo" hori konpontzeko. Hala ere, gehienetan arazoa ez dago zakilan, pertsona horrek

**Uste degu zenbat eta handiagoa izan zakila ordun eta gozamen gehiago izango duela emakumeak**

duen ezjakintasunean edo aurretizi okerretan baizik.

### Tamainak zerikusirik ez

Zakilak hiru funtzio ditu: txixa egiteko balio du, erreproduzioa ziurtatzeko, eta gozamena emateko eta jasotzeko. Ze harreman du zakilaren tamainak hiru funtzio hauekin? Batere ez.

Ondo osatua eta neurri normaleko zakila batek, tente dagoenean, 10 eta 15 zentrimetro artean neurtuko du. Zakilen artean ez dago ezberdintasun handirik. Gertatzen dena da, jeisterakoan batzuk besteak baino gehiago txikitzen direla, eta hor diferentziak nabarmenagoak izan daitezke.

Baina zergatik sortzen dira horrelako konplejuak? Uste degu lako zenbat eta handiagoa izan zakila ordun eta gozamen gehiago izango duela emakumeak. Baina behin ere arduratu al gera galdetzeaz emakumeari nola gozaten duen gehiago, zerk ematen dion gozamena?

Zakila ez da trofeo bat, jostailu bat baizik. Jolastu dezagun beraz. ■

### xirula



ARGAZKI ETA BIDEO  
ERREPORTAIK  
ERREBELATZEAK  
KAMARAK  
MUSIKA

TELEBISTA  
BIDEO  
HI-FI

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA  
Tel. 861705



Basadi Auzategia, 10-A atzean Telefonoa: 862228 ZUMAIA



**ZINEFORUM**

**Martxoak 9** (Emakumearen eguna ospatzeko)  
osteguna

Izenburua:  
"La maté porque era mía"  
Aktoreak: Philippe Noiret  
Richard Bohringer  
Miou-Miou

**Zuzendaria: Patrice Leconte**

"El marido de la peluquera"-ren egileak oraingo honetan komedia baten kaligrafia erabili du: ahal den gehienetan ligatzen ibiltzen den gizon ezkondu batek bere emazteak adarrak jarri dizkiola jakitean, osabarengana joango da aholku eske. Honek egokiena emaztea hiltzea dela esango dio, hortarako hirugarren pertsona bat kontratatuz. Istorio honekin Lecontek ironiaz matxismoa kritikatzan du.

**ZINEFORUM**

**Martxoak 23**  
osteguna

Izenburua: "Reservoir Dogs"  
Aktoreak: Harvey Keitel  
Tim Roth

**Zuzendaria: Quentin Tarantino**

Tarantinok ( Pulp Fiction-en zuzendaria) bere lehenbiziko filme honekin oso garbi erakutsi zuen badakiela zinea egiten eta ona gainera. Filmen ordeztu telefilmak egiten dituzten Hollywood eskasetik aparte zinegile independente onak nabarmentzen dira EEBB-n: John Sayler, David Mamet, Woody Allen, Abel Ferrara eta jadanik mundu osoan ezaguna den Tarantino. Gaizki aterako zaien atrakatzailen istorioa kontatzean, (lehengo zinegile maixuen estilora) bortxa erabili beharra duten pertsona batzuk aztertuko ditu Tarantinok. Filma gogorra, errealista eta laberintikoa.

**IRAKURKETARAKO AUKERAK**

Joseba Gabilondok idatzitako liburua, kronika modukoa da, egunkarietan idatzitako artikuluen bilduma. Bestea, Elexpururena, Alpeetan bizikletaz eginiko txango baten azalpena da, bidaia liburua.

"Kaliforniatik bihotzez" Gabilondo, Joseba  
"Alpeen itzalpean" Elexpuru, Juan Martin

Bi idazle klasiko ondoren:

"Koxka bat estuago" James, Henry  
"Prozesua" Kafka, Franz

Gaztelerazko literaturari dagokionez, horra zerrendatxo bat:

"Paula"	Allende, Isabel
"No se lo digas a nadie"	Bayly
"¡Firmes!"	Coll, Jose Luis
"El Alpe D'Huez"	Garcia Sanchez, Javier
"Dias Contados"	Madrid, Juan
"El estrangulador"	Vazquez Montalbán
"Tranvia a la Malvarrosa"	Vicent, Manuel
"El florido pensil"	Sopeña Monsalve
"La historia del silencio"	Zarraluki, Pedro



**JUSTA TABERNA**  
EGUNEROKO BAZKARIAK

Erribera kalea 20, Zumaia

**KALARI TABERNA**  
**JATETXEA**

- \* Eguneko menua
- \* Plater konbinatuak
- \* Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA



# BADATOR KORRIKA!!!

Martxoak 24an Korrika gure herrira iritsiko da. Hori dela eta, aek-k egitarau bat prestatu du.



Martxoak 18an  
6,30etan kalejira alaia: hankapaluak, trikitilariak, kuestazioa.  
9,30etan afaria Inda Mendi elkartean.

Martxoak 23an  
Arratsaldeko 5etan Korrika Txikia beheko Plazara eta bertan festa txiki bat gure eskoletako hurrekin.



Martxoak 24ean  
Goizeko 6,10etan pasako da Korrika gure herritik. Getaria aldetik etorriko da eta pasatakoan gosaltzeko aukera izango da Inpernupe elkartean

Hasi txandalak eta zapatilak prestatzen!!

**Eski irteera**  
**Martxoaren 18**  
**eta 19an izango**  
**da Candanchu**  
**aldera.**  
**Ondo pasa!!**

**Organo**  
**kontzertua**

Zumaiako San Pedro  
parrokian  
Martxoak 4  
Arratsaldeko  
20,15etan

**Ikastaroak**  
**Ahots eta dultzaina**  
**ikastaro bat**  
**prestatu dute**  
**musika eskolakoak.**  
**Interesaturik**  
**bazaude, deitu**  
**ezazu informazio**  
**gehiago lortzeko.**  
**Telf: 86 11 83**



**AIZPURUA**

L  
I  
B  
R  
U  
D  
E  
N  
D  
O  
P  
A  
R  
I  
A  
K

Aita-Mari Auzategia, 17  
Telefonoa: 861569  
20750 ZUMAIA

OPARIAK

**ITZURUN**



**KIROLAK**

Amaiako plaza, 13  
Telef. 860758  
20750 ZUMAIA



Mendaro Marinela, 3 behea  
Telefonoa: 143395 ZUMAIA

**ERTZ**

**INFORMATIKA**

- \* KONPUTAGAILUAK
- \* OFIZINAKO TRESNAK
- \* AKADEMIA



# ERAKUSKETAK

**Martxoak 20  
Apirilak 3  
bitartean**

**"Euskal  
tradizioaren  
jaiak"**



Argazki erakusketa  
Alfredo Feliu Corcuera

Argazki  
erakusketen  
ikustorduak:  
Astegunetan  
6,30-8,30  
asteburutan 6-8

**Martxoak 24  
7,30etan  
Forondan**



Ikusentzunezko  
emanaldia  
**"Xacobeo bidean  
esperientzia bat"**

Egileak:  
Txaro Polo eta  
José M. Marruedo

**Martxoak  
3-19  
bitartean**

**Angel  
Perez**

Argazki  
erakusketa, txuri  
beltzekoak eta  
koloreztatuak

## XII. San Telmo saria

Urtero antolatzen  
den literatur  
lehiaketa honen  
helburua euskararen  
erabileraren  
suspertzea da

Zumaiar orok har dezake parte lehiaketa honetan,  
adinaren arabera maila ezberdinak egin direlarik: Lanak  
hitz lauzkoak, olerkiak edo bertso paperak izan daitezke.  
Hauek aurkezteko epea martxoaren 15ean amaitzen da  
Sariak, euskal liburuak eta diskak erosteko 5.000 pezetako  
txartelak izango dira.



Zerbitzu Ofiziala

**ZUMAIA AUTOAK**

Juan Belmonte, 45  
ZUMAIA

Telefona: 861485  
Fax: 143143

EGUZKI  
PUB  
KOKTEL  
BEREZIAK  
Basadi Auzategia  
9-A 2-B  
ZUMAIA

**ITSASKI**  
supermerkatua



Urumea kalea z/g  
Zumaia



# Euskal Herria, era guztietako musika taldeen kabia

## Gutxi batzuk dira ordea aurrera ateratzea lortzen dutenak

Jakinekkoa da Euskal Herrian jadanik musika mota guztiak jorratzen direla; nahiko aberatsa da zentzu honetan. Ez degu hemendik irten beharrik gustokoa degun musika topatzeko. Euskeraz, erderaz nahiz ingelesez aukera mugagabeak ditugu

Baleike

Estatu mailan Euskal Herria degu aurrenetarikoa musika taldeei dagokienez. Herri bakoitzean hainbat talde daude estilo oso ezberdinekoak. Hala ere, gutxi batzuk lortzen dute beren izena ezaguna izatea eta orandik gutxiago musikagintzatik bizi direnak.

Gaur egun dauden talde gehienak irtenbidea, zirkuitu batean mugitzea da, hau da, taberna txiki, diskoteka edo gaztetxeetan. Ez dago beste irtenbiderik. Aurrera atera ahal izateko, jendearen aurrean jo behar da, bai esperientzia gehiago edukitzeko eta bai jendea ezagutarazteko.

Horrela, komertzialitatekin kanpo dauden talde guztiek "Underground" berezi hori sortu dute.

Askotan, musikaren kalitatea



Lord Sickness taldea.

ez da behar den bezala onartzen eta disketxeek esplotatu daitezkeen taldeei bakarrik laguntzen diete. Musika arraroa edo indartsuegia egiten dutenei ez diete arretarik jartzen.

### Lord Sickness

Ama Say, Bap, El Inquilino Comunista, Nuevo Catecismo Catolico, Los Bichos, Dut, Orgasmic Toothpicks, Cancer Moon, La Secta etab. luze bat esandakoaren adibide garbiak dira. Guk ildo honetatik joko degu.

Nahiko eta gehiegi hitzegiten degun

taldeetaz ez degu berriro muturra sartuko. Horregatik, hona hemen Getxoko talde baten istorioa, "Lord Sickness" taldearen istorioa.

Talde honen partaideak lau dira: Jorge (baxua eta ahotsa), Edu (kitarra eta ahotsa), Ricardo (kitarra eta ahotsa) eta Andres (bateria).

**Komertzialak ez diren taldeek oso zaila dute beren kabuz aurrera ateratzea**

Iazko Bilboko seigarren pop-rock lehiaketaren irabazleak dira. Bertan, estatu mailako bostehun talde baino gehiagok hartu zuten parte. Ez zutela irabaztea espero aitortu bazuten ere, hain garrantzitsua den lehiaketa bat irabaztea ez dela kasualitatearen fruitua esan beharra dago.

Pavement, Mudhoney, Nirvana eta nola ez Sonic Youth dira talde honen erreferentzia nagusienak baina agian hain urrutira joan gabe Getxon bertan dute sekulako harrobia eta beraz, badute non ikasi.. Los Clavos, El Inquilino Comunista eta Los Nadie-rekin harremana izateak zerikusia edukiko zuen.

**IHINTZA**  
taberna  
Tlf: 860472  
Ortega y Gasset, 3

**TXALAPARTA**  
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2  
20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 89  
Fax. 43 06 37

**JEMAR**

**LOREDE NDA**

LANDAREAK  
LOREAK  
HAZIAK  
ZERAMIKAK

Erribera, 1 Telefonoa: 860375  
20750 ZUMAIA



Jabi ("Inquilinoko" bateria), Andresen anaia, beren lehen maketan eta bigarrenaren produkzio lanetan, laguntzaile izan genuen. Talde hau ("El Inquilino") beraien aurretik doa eta "Lord Sickyess"ek berriz konturatu gabe atzetik jarraitzen dio. "Cock´zine I", "Las lágrimas de Macondo" eta "Reserve IV eta V" fanzinetan aportazio batzuk eman eta gero, 600-recordsen zazpi pulgadetako inagurazioan beste pare bat kanta aurkitzeko zortea degu. Azkenik, urte hontan 600-records etxearekin "NEUMOTORAX" izeneko lehen

Bada talde hau eta honelako beste askok ere merezi duten goraiamena izateko garaia. Zirkulo alternatibotik ezin da bizi. Boterea duten "lau katuen" gustokoa ez bazera, galdua zaude betirako.

Zorionez Euskal Herrian disketxe independenteak gero eta gehiago dira, aukera gehiago egonaz

**Lord Sickness  
taldea iazko  
Bilboko pop-rock  
lehiaketako  
irabazlea degu**

diska bat grabatzeko merke xamar gainera.

Baina azken finean errua gizarte guztiarena da, musika atsegin arren diskarik ez baititugu erosten. Nahiago degu gustatzen zaigun diska hori norbaiti eskatu eta pirateatzea. Horrela ez goaz inora eta gainera geure talde maitatuenak ez dute txanpon bat bera ere jasoko.

Tristeia da, baina Euskal Herrian musikagintzan dabilen jende gehienak onartua du hau horrela dela eta oraingoz ez dute sendabiderik deskubritu gaitz honi aurre egiteko. ■

## MAKETAK

Ondarruko talde hau, bere izenak adierazten duen bezela, SKA musika martxosoa egiten saiatzen da. Eta baita lortu ere. SKA, REGGAE, eta noizbehinka erritmo punkiak tartekatzen dituzte, garai bateko "Pikutara", "Kortatu" edo gaur egungo "Baldin Bada" bezelako taldeak gogoratuz.

Iñigo ahotsa, Joseba baxua, Xabat kitarra, Josu bateria, Beñat eta Ana tronpetak, Alberto saxoa eta Asier tronboia, maketa honek duen soinua onaren errudunak dira.

U.H.T. estudioetan zuzenean grabaturiko sei kanta eskeintzen dizkigu eta beren letretan errepresioaz, manipulazioaz,



sexualitateaz edo gaur egungo egoeraz mintzatzen dira.

Gaur egun Euskal Herrian gero eta gutxiago dira musika hau egiten dutenak. Tamalgarria da zeren nahiz eta Jamaikatik ekarritako musika izan, hemen SKA egiteko era berezi bat dago, eta talde honek bere osotasunean erakusten digu.



Granadako lagun batek bertan urtero izaten den "Esparrago Rock" festibalari buruzko informazioa bidali digu. Martxoaren 24 eta 25ean izango den nazioarte mailako jaialdi honetan, bi euskal taldek hartuko dute parte, Sonis Youth, Sex Museum, Pata Negra eta beste hainbat talderekin batera:

SU TA GAR

EL INQUILINO COMUNISTA

Norbaitek informazio gehiago nahi badu, egitaraua ere badegu.

**TXOKO  
TABERNA**

Artadi auzoa  
ZUMAIÁ

*Jesuskoa  
Faletxea*




*Araua 86 17 39 • Ukiu Zumaiá*





**GURUTZEGRAMA**



**EZKER ESKUIN:** 1.-Baliakizuna. 2.-Gaueko argiak. Lutezioaren sinbolo kimikoa. 3.-Gurpilik gabeko gurdiak. More. 4.-Ez eme. Aurki. Potasioaren sinbolo kimikoa. 5.-Bizibidetzat kimika duen pertsona. 6.-Lehenengoa. Irabaziak. Bokala. 7.-Erdi, hitz elkarketetan. Sartu aditzaren infinitiboa. Ergatiboaren marka. 8.-Röntgenen sinbolo kimikoa. Arrazoi. Joan den urtean. 9.-Atabal jolea. 10.-Errepikatuz, fruitu tropikala. Ikas eta ari. Niri.

**GOITIK BEHERA:** 1.-Aurrerabidea. 2.-Basoko animalia. Kontsonantea. Har ezak! 3.-Bizkaian gehiegi. Laburra. 4.-Ura 100 gradura heldu. Bide. 5.-Pluralean, intsektu mota. 6.-Baldintzetan. Alderantziz lege. Musika nota. 7.- Ikuskizuna. 8.-Bostehun. Hau eta hori. Areagotzeko partikula. 9.-Hitz. Kontsonantea. Ez ahal. 10.-Eserlekuak. Interjekzioa.

**Ez badezu asmatzen...**

Nire lehengusua nazio batean dago, baina ez dakit non. Pista hauek irakurri eta ea zeuk asmatzen dezun.

1. Inglaterrek 1792-1815 artean menperatu nahi izan zuen, baina gurkek ez zioten utzi.
2. Ia munduko naziorik altuena da.
3. Ez dauka ia industriarik.
4. 1949.ean, independentzia onartu zioten EEBBek eta inglaterrek.
5. Hinduistak eta budistak ugari dira.
6. Ez da India.
7. Munduko mendi altuena hantxe dago.
8. Hiriburua Katmandu da.

Argazkiari begira zegoen gizonari horrela galdetu zion batek: "Norena da argazki hori?", eta honek erantzun:

"Ez dut anaiarik ez arrebarik, baina gizaseme honen aita nire aitaren semea da".

"Gizasemea" argazkian agertzen dena da, noski.

Gizona begira zegoen argazkia norena zen?

Demagun egoera berean, honela erantzun duela gizonak: "Ez dut anaiarik ez arrebarik, baina gizaseme honen semea nire aitaren semea da.

Norena izan daiteke argazkia?

**Negar egiteko txistek**

**Kanposantuan**

Badoa mozkorti bat kanposantutik pasiatzen eta bapatean hilobi batetik gizon bat ateratzen ikusten du. Honela oihukatzen du gizonak:

-Bizirik nago, bizirik nago!!

-Zu bizirik? Zu gaizki enterratuta zaude!

Eta hostikada bat eman eta zapaldu egin zuen.

**Jangoikoaren zirriborroa**

Erljio azterketa batetan, honako galdera jarri zuen irakasleak:

-Zergatik Jangoikoak egin zuen lehenengo gizona eta ondoren emakumea?

Itziarrek erantzun zuen:

-Edozein arte-obratan bezela, lehenengo zirriborroa egin zuelako.



**OHARRAK**

Asteazkena 8, emakumeen eguna dela eta gaueko 9tan Oxforden Kafe Tertulia. Azaldu zaitez!

Ingleseko klaseak ematen ditut. Maila guztietan.

Tlf: 862103.  
Aitziber

**AGURRAK**

Inpernupetik besarkada gogor bat preso guztiei eta batez ere zumaiarrei.

Ei!! Zergatik ihauteri hauetan ez zarete burdin zerraz mozarrotzen? Gu Atutzaz mozarrotu gera. Zumaiako Jarrai.

Martxoaren 8an bezela beste egun guztietan. Zorionak eta jarraitu!! Zumaiako Jarrai

Garibaldi, gorde txitxarroak plaierotako partiduetarako!!

Patxi musho beti

Santo Domingon domingero ugari dominikana artean.

Irureta kanpora!  
Waliño for trainer Athletic Club.

Inpernupen ipotx bat desagertu da: metro t'erdikoa da eta marmarra du lagun. Hi haiz hi aurpegi okerreko barmana.

**SALEROSKETAK**

Eskusoinu bat daukat salgai.96 baju ditu eta "Borsini" da bere marka.Egoera onean dago.Norbait interesaturik egon ezkerro dei nazala telefono honetara: 861811.

Pixkat hortera zara? Ba zuretzat opari aproposak ditugu: "Jazmin", "tentación" eta nahi dituzun nobela roxa guztiak. Debalde!! Deitu Forondara.

**SORPRESA**

Maria Luisa, fregatu egin behar denela? Egingo din Joxe Marik, ze arraio!

Aizan hi, hartuko al dinagu kafe bat elkarrekin? Asteazkena 8, gaueko 9tan Oxforden zita bat daukagu.

-Hi neska nora hoa hain azkar?  
-Kafe tertuliara!  
-Zer zion ba kafe tertulian?  
-Sorpresa.  
-Zein sorpresa?  
-Tatatxan!!!!

**ALDIZKARI HONEN SALMENTA PUNTUAK**

- Jesuskoa
- Errota
- Ogi Berri
- Arkupe okindegia
- Alai janaridenda
- Aizpurua liburudenda
- Olano liburudenda
- Erkibe
- Nikol kafetegia
- Inpernupe taberna
- Zalla erretegia
- Foto Gar

**ARGIA**



Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93  
ZUMAIA

**SOLOZABAL AUTOESKOLA**



Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

**P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416**



# Lehiaketa

Zein izango ote da Zipi-Zape bikote hau? Beren izenak ematen dituzuenen artean, **Txapartegi gozotegiak** eskeinitako tarta eder bat zozketatuko degu.

Utzi zure erantzuna eta datuak Foronda, ONCEko kabina edo Txapartegi bertan **Martxoak 17a** baino lehen, eta zorte on!



Aurreko zenbakiko erantzuna: iturria Erribera kalean dago, Inpernupe eta Taosa artean hain zuzen ere.

Oraingo honetan erantzun gehiago jaso ditugu eta hauen arteko zozketan **Tere Dominguez** suertatu zen irabazle. Zorionak eta on egin!

Besteok badakizue, segi jolasten!